

SECCION AMENA.

ORENTZARO.¹

(Argitaratubagea.—Inédita.)

Zay egoten naiz luzaro
Eldu bediñ Orentzaro
Zergatikan dan eguna
Zelebratzen deguna,
Bazkariz eta afariz
Eldutzen dan aiñ bat aldiz

Orentzaro izan ezkeru
Gure echian urtero
Nola oroitzen zaitan
Egun artan bazkaitan
Ez da ez izango falta
Eltzian odolki galanta.

Afari oberik berdiñ
Ez du beste iñork egiñ,
Ez peseta frankore
Kostatu bazayo ere
Ostaturik onenian,
Martin Ezcurra-renian.

Orduko nere gloriyan
Dantzari asteko zoriyan
Jartzen naiz geyenian
Egiten dutenian
Arduak botillan klun-klun-klun
Gaztañak surtan pun-pun-pun.

(Vilinch.)

Otso ta asto gaisotua.

IPUIA.

Jakiñik otsoak gaišo edo eririk zegoala astoa, joan zitzaion ekustera sendatzeko estalgarriaz. Ikutzen zion an ta emen, ta diotsa:

—¿Non dezu miñ? ¿Non dago zure gaitza?

Eranzun zion astoak bero mediku edo sendagille ederrari: zuk ikutzen didazun leku guzietan daukat miñik andiena. Orretan dago nere gaitza edo kaltea, ta eskerrak emango dizkitzut pakean bazaude. Zu bezelako sendagillak dira gaitza irasteko obeak.

Ipui onek dio, gizon gaitzoak saldu nai dutenean on egiña itz ederrakin, orduan ari dirala guzien gaitz egiten.

Bada,

*Ez sinistu gizon gaistoari,
Gezurra dariolako alakoari.*

Vicenta Moguel eta Elguezabal.

VJ^{garren} itanasiaren askantza: — ALKATEAREN ZUMEA.

XV^{garren} somaketaren askantza: — OSIÑA:

XVI ^{garren} SOMAKETA EDO ASMAKETA.

*Batak Biya-rekin
Egiten du bata,
Nere dana, janzi
Oi dan gauza bat da.*

ASKANTZA urrengo lumero edo liburuchoan.

(1) Vilinch-en paperea artean arkitua.